

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Aurreko atalean esan dugun bezala, edozein negozio-ereduren arrakastarako gakoa, bezeroak dira. Atal honetan, beraiekin edukiko ditugun harreman motak definituko ditugu.

Gure bezeroekin harreman automatizatua edukiko dugu, hau da, ez dugu pertsonalki hitz egingo beraiekin, guk app-a eskaintzen diegulako eta haiek erabili besterik ez dute egiten, ez dago inolako harreman pertsonalik. Gure ustez hau da gure kasurako aukera egokiena, honen bidez, gure taldeko inor ez delako arduratuko erabat bezeroarekin harremanetan jartzeaz. Baina balorezko proposamenean esan dugun bezala, app-arekin arazorik izanez gero, jakinarazi ahal izango digute.



Hori bai, guk bezeroei konfiantza transmititzea dugu helburu, beraz arazorik ez balego bezeroek ez dute zertan gurekin hitz egin beharko, baina arazoren bat topatuz gero aplikazioa erabiltzean, gurekin hitz egin dezakete e-mail bidez, eta guk 48h-tan erantzutea bermatzen dugu, gehienez.

Gure ustez honela harremana automatizatua izan arren, bezeroek gure kontaktua beharrezkoa edukiz gero beti edukiko gaituzte eskuragai, horrela, konfiantza puntu bat transmitituko diegu gure erabiltzaieei.